

Iraultzaren hildotik eta Zezenak Errepublikan: hona bi liburuetan euskal aldi beraren bi kronika desberdin. Frantziako Iraultzaren enbata, Euskal Herriratu egiten da XIX mendearen azkenetan, eta hontaz mintzatzen zaigu bata; besteak, berriz, kanpotik zetorkigun eupada iraultzaile hari Euskal Herrian eman zitzaion erantzun bortitzenaren abotsa entzunarazten digu.

Frantziako Erreboluzio hura euskalduntzeko, jaio zen Le Réveil Basque baionesa (1886). Eta, bestaldetik, Eskualdunarekin erantzun zitzaion (1887). Asteroko honetatik jasotzen dira ideia-zezenketa haren oihartzunak.

Liburu honek bere kondairatxoa du eta kontatu egin

beharko diot irakurleari. Egun batez, eta erdi ustekabeen, Piarres Lafittek liburugai bat eman zidan eskuetara Uz-taritzen. Nik ez nekien nor zen ere ia, hainbeste eta hain-beste horrialde bete zuen idazlea. Ez nekien kasik deus Hiriart-Urruty hartaz. Gero, ikasiaz eta irakurriaz jakin dut zerbait.

Historizale eta euskal literaturzaleek ahanz ez gene-zakeen luma zuen Jean Hiriart-Urrutyk. Jabetu dira hon-taz, dagoneko, JAKINen harpidedun eta irakurleak; bai-na, orain, beste balio bat azpimarkatu nahi nuke.

Idazle gutik ekar dezaiguke garaiaren histori testigan-tza jakingarriagorik. Euskal Herrian, hazpandarraren lu-ma egunean eguneko kezketan blai eginda ari bait da lanean. Testigantza hau historiaren kontraispiluan ikus zedin, gutarterako - Euskal Herriaren hegoalderako - kondairaren testoiingurua eman beharrekoa zen. Hona, ba, ustegabeko zereginetan sartuta idazlea.

Zer eman nahi du, beraz, Iraultzaren hildotik honek? Ez gabiltz hemendarrak ipar Euskal Herriazko jakitatez jantziegi, beharbada jakiteko erosotasun handirik ez du-gulako ere bai. Hangoen historiari gagozkiola, pobreago gara oraindik, «beste» historia bati loturik egina bait da haiena.

Hiriart-Urrutyk, garaiko hango euskal giroaren berri jakitea eskatzen du. Areago: ipar Euskal Herriarena kon-prenitzeko, Frantziakoan Euskal Herriak zedukan berezi-tasuna erakutsi behar zen. Kasik mende erdi bat aztertzen du lehen parteko istudioak: 1870-etik 1914-eraino edo. Bi gerrateen mugetan ezartzen da, beraz, historialdi hau; hala ere, -esan beharrekoa badadi, aitor dezadan- saia-tu naiz egunurteon aldi-mugak urratzen, historigileen ar-tean honelako mugaketa hertsiek, dirudienez, aspaldixko galdu bait zuten behinolako errespetagarritasuna.

Iraultzaren hildotik parteak, denboraldi jakin bateko euskal kondairaren testoiinguru zabala ematen du, pre-miazkoa bait da gure historia ulertu nahi duenarentzat Eu-

roparen zein Europatan bizi izan garen jakitea. Bigarren partea, garai bereko kezken dokumendu berriemailea da. Testigantza honek, bizitasunik behinena ukanen du, lehen-dabizi gure idazle kazetariaren, periodistaren, inguruko liskar zornatua ere atzematen baldin badugu.

Dokumendu horrek ezarri dio lehen parteari histori ikuspegi berezia. Haren arabera gorde den ikusbidea, garai-ko (1891-tik 1915-erako) euskal kazetarismo zabalduen harena izan da, bestelako kriterio eta irizpidez (zer esanik ez) begiratu baldin badut ere. Inoiz funtsezko historiarik lortuko baldin bada, Euskal Herriko azpimoldadurak aztertzeari ekin beharko zaio; baina hori, egiteko dago, eta beldur naiz oraindik ere, epe luze batetan, horrelaxe egon beharko ez ote duen. Anartean (R. Kanblong-ek hasi zuen demografiako lanak-eta buka ditzagun artean), bizi egin behar eta ahal dugunari -dadukagunari- heldu beharko. Horixe egin dut: ipar euskaldunak urduritu zituzten politika eta ideia-borroken berri eman.

Lehentxeago aipatu dudan Urliak, Euskal Herrian bertako gehiago nahiko zukeen, eta ni ere ur beraren egarritan gelditzen naiz. Oraingoan ez da posible gertatu asetzeari, eta nere oraingo ezinaren ezin hau barkagarri gertatuko ahal zait irakurle eta kritikariaren aurrean. Euskal Herriak, Pirinio Atlantikoetan sartuta egonarren, bere nortasuna atxiki egin zuen, eta nabarmendu, urte haietan, bai politikan, bai beste asmotan. Hori ageri da hemen, eta ez da guti.

Bukatzeko, esan dezadan, dokumendu-antologiaren prestaera dena Piarres Lafitte kalonjeari zor diogula. Eskerrak berari, ipar Euskal Herriaren abots hau gugaratu digulako.

J. I.